

LABURDITAR IPUÑAK.

BI OHOINEN ICHTORIA

Bi mutil gazte, beren presondegiko denbora finiturik, etcherat heldu ziren.

Oihanburuko nausiak erosi zuen merkatuan asto bat ederra. Erran zion batek bertzeari: "Errak, to... Oyanburuko nausiak erosi dik asto bat ederra; ebatsi behar zioau helduden gauean!" — "Ze, orai presondegitik heldú ta, goan nahi huke herritz, harat, gibelat..." — "Ez hadila izi: batere hik deusik arrikatu gabe, nik eginen diat afera!".

Laguna ere, bertzeak egitekotz, berak batere arriskatu gabe, prest zen, hala hala.

Sartzen dire, beraz, gau hartan, establian, eta erraten dio: "Hi, astoa hartu'ta, goanen haiz holako ostaturat, holako lekurat, eta ni egonen nauk hemen, astoaren tokian, biluz gorritu'ta astoaren kaprestuak eman'ta eta jakinen diat nausiari zer erran biar goizean".

Erran bezala egin zuten.

Hura partitu zen bere astoarekin.

Nausia, alainanba, goizean argitu zenean, etorri zen bere kabala ederraren ikusterat; eta atea ideki'ta, ikusi zuenean gizon bat han biluz gorritu'ta, gibelat egin zuen, harrituta. Erran zion: "Nausi ona, nausi ona, zato hunat aintzina, etzaitela izi... Zuk atzo erosi duzun kabala eder hura naiz ni hemen. Bekatoros handi bat nitzen eta gau huntan finitu dut nere bekatuen penitentzia. Ikusten duzun plantan naiz hemen! Othoi, arropa tchar batzuek bezitzen baninduzu". Nausia urrikaltzen da eta bezitzen du.

Galde egiten dio, gero. "Ematen baninduzu jaterat pichka bat... goseak nago!!".

Gosaltzerat ematen dio.

Gero erraten dio: "Nausi ona, gizona zein triste den, sakelan sosik gabe, nihorat ezin kurri".

Ematen dio borts liberako bat, urrikaldu'ta.

Badoa bere lagunaren ganat, ederki gosaldúa eta beztitua eta borts libera sakelan. Erraten dio nola pasatu den ichtorioa; eta handik laster, saltzen diote beren kabala makiñun bati, ez kario.

Berak, partitzen dire beren etchetarat, bideko gastu sariekin.

Handik auzo herrian izaki merkatua eta, badoa Oyanburu nausia, zerbeit kabala erosi behar duela.

Harat goan eta, ikusten du han bere kabala hura; alde baterat begira, bertze alderat begira, eta iduritzen harek erosi asto ber bera dela. Begira gibeletik, begira saetsetik, eta makiñunak lorietan, hari saldu behar ziotela...

Azkenean, badoa beharri chilorat, astoari, gure Oyanburuko nausia; eta erraten dio: "Ai, adichkidea, adichkidea, bekatoros handia zinela... Ez nauzu berritz trompatuko, ez... Nahiago dut mando tchar bat erosi, zu baino!"

Oyanburuko nausia ongi bizi bazen, ongi hil zen! Ederki arri-matu zuten bi ohoinek!

MAVI ARIZTIA.

